RE-7-4-1!

# GABONETAKO

# ANTZERTI YAUNKOYA



GABONETAKO

ANTZERTI

YAUNKOYA

(BEROGEI IRUDITAN)

Jesus Gonzalez'ek egiña
eta Manterolak Gabriel
euskeratua
Bilbon 1964'ko Ufilan

(Apal eta ixilik)

"AINTZA GOYETAN YAUNGOIKOARI ETA BAKEA LUREAN GOGO ZIN-TSODUN GOZONEI" (Luk. II, 14)

## ATZALBEN ANTZERA

Apaltunez ta bakaŕean guria doadez baŕiztau Nikolas deuneko Kristiñau Irakaskintzak Eleiz-urteko liturji edo-eleiz-guntzako arosten, aurkezten ziruan Antzerti Yaungoyak, 1937'gna ezkero alegin edeŕak eginda, arimen irakatsi andiz eta pozez.

Gabonetako Antzerkiagaz asten ziran danen alegiñagaz, zeaztasun gitxigaz eta okeŕ askogaz agertzen diranen ordez albait ondoen gure ziñestearen ogiari garbi ta pozgaŕiari yaŕaitzeko eran.

Oitura on eta sakonak, "yayotzak", oitura pozgaŕi sutsuak, gure Eŕianondo sustraituta egon dira eta dagoz katoliko-bizitzaren agerkai eder lez. Irudiak, yayotzak, Gabon abeistiak, eta olerti usanak, betetan dituez gure etxeak eta kaleak, Gabonetako aldi zoriontsuan...orduko eraspenak....ta berezitasunak, danak eskintzen osagaŕi ta bakeŕik osasuntsuena arimentzat....Baña, Beŕeroskunden- Eskutapena baŕu-baŕutik ezagutu beaŕa dago, Yainko-semearen Gi-

zakundea, gogoan eukiaz Yaunak gertau oituan biedak eta gizadiari eskiñi eutson astia, eskutapen guren onek eskatzen eban lez.

Tomas Deunak diñon lez, "Yainko-yakituriaren asmo afigafi bat zala-ta".. Yaungoikoaren Semea ez zan izan bialdua pekatuaren yafayan........Gizonari bere algartasuna ezagutzeko eta Yaun-Osagille laguntza esketzeko astia emon beafa zan". Eta Trento'ko Eleiz-Batzafak diñosku: Zeruko Aitak, Bere Seme Yesu-Kristo gizonakana bialdu eban aufeztik iragafi eta aginduta ta gero bai Erkaba deunei, Moises'en Lege aufetik, baita goroago be, Bere bidez - guztiak Yaungoikoaren semetzat artuak izan zeitezan".(S.VI,1)

& & & & & &

## S A R E R A

"Yaunak Bere bideak gertau zituan eta Gizakundeko eskutapen sakonak Gizadiagandik eskatzen eban aldia eskiñi eban".

Itun Zaŕeko Edestia, Eleiz-gurtzak aintzat artzen dituan iru ataletan azaltzenda. Gauzak ezerezetik atara eta gizonen gaiztakeria zabalduaz batera, Yaungoikoaren grazi eta eŕukitasunak lenengoz agertzen dira: Eŕukiz, Beŕesosle bat agintzen dau, eta Isŕael'go eŕia Bere eŕitzat artu ta eŕi ospetsu ta aundi egiten dau. Yaungoiko gure Yaunak, Bere Eŕi Autua gertatzen dau eta beragan beste eŕi guztiak Gaizkatzalearen etoŕerarako, eta eŕi onen apurka apuŕka yaustea be, Yaunak Bere Agintaritza orokoŕaren etoŕara gertatzeko bidetzat artu eban.

Antzarki Yaunkoi onetan, bide oŕeri yaŕaituko dautsogu. Emen azalduko dira Yaunaren agintza ta onespenak, Eŕi Autuak Gaizkatzalea ikusteko euki eban gurari bizia, Eŕi onen yoran eta aŕen

etorteko egiten eutsozan deyak, eta Iragarkiak beteaz Yesus gure Bereroslearen etoŕera.

## LENENGO ATALA

## IRUDIA 1.-BEREROSLEAREN AGINTZA

Gizonaren eŕua argi egoan eta, Yaungoikoaren Zuzentasunak pekatari eta pekatu eragin eutsonari egoki izan yakon zigoŕa ezaŕi eutsen; baña, era berean, pekatuaz zauritutako gizonagazko eŕuki neuŕibakoa Yaungoikoak agertu eban, inernitar sugea ondatua izango zala esanaz, eta agintza pozgaŕi au egiñaz: Ama Sortzetik Garbiagandik gizariaren-Gaizkatzaĺea yayoko zala.

"Eta Yaunak sugeari esan eutson: Au egin dokalako gaiztetsia, madarikatua izango az abere ta luŕeko piztien artean)I eta emakumearen artean neuk etsaitasunak ipiñiko yoayaz, ire enda ta aren yatoŕiaren artean, eta berak ire burua biŕinduko yok eta i emakumeares orpoaren zeletan ibiliko az".......

## IRUDIA 2.-ABEL'EN OPARIAK

Gure begian auŕean agertu baño len,

eguzkiak bere argitasunak bieltzen da-
uskuzan antzera Yeu-Kristo, gure gogoan
Eguzkiak, bre Grazi donetzelearen iz-
piak lelengo gizaldietan bialdu zitu-
an, eta Yaungoikoak Beferoslearen ira-
baziafen, bear ziran graziak, Kris--
tiñau-aldiak baño lenago, euren gaizka-
tzea, gogo onez bilatzen eben gizon gu-
ztiei..Oparia Yaungoikoari geure menpe-
tasuna agertu, Bere nausitasun autortu,
eta geure gurtza, eskefona, ustea da-
mutasuna ta ordaña agertzeko bide izan
da eta da. ~~Pekatuaren~~ ondoren, Idazti
Deunak, lenengo aldiz aitazten dauzkuz,
Abel'ek egiten edo eskintzen ebazan-
opariak. Agustin deunak diñonez bere
anai Kain'ek eralda il zan Abel, Befe--
roslearen irudi izan zan.

IRUDIA 3.-MELKISEDEK'EN OPARIA

Oben (pekatu) ta gaiztakeria luf
zabalean zabaldu ziranean, Yaunak eroa-
penik aundienagaz ziñesgeen artean gi-
zon bat aukeraru eban: Abraham, gizon
zuzen eta onbidetsua. Etofiko zan Gaiz-
katzaleagazko ziñeste ta itxaropena an-

dorengoen artean beronek zainduko eban. Abraham bere arerioak garaituta, Melkisedek afera egitean eskiñi eban oparia eskutuki sakon eta esan gure andiakoa izan zan. Yaungoikoaren yaupari zanez, Abraham onetsi eban eta opari lez "ogi ta ardaoa" eskiñi ebazan. Melkisedek Bakaldun eta Yaupari zan, eta opari bat eskiñi eban, Guztiz Gurenaren Yaupari Nagusi ta Bakaldun zan Beferosleak eskiñi eban Opariaren ezaugafi ta irudi dizdiratsua.

IRUDIA 4.-ISAAK OPARIRA BIDEAN

Yaungoiko gure Yaunak, Bere agintzetan eukon ziñeste sendoa eta bere maitasun zintsoa agertzeko ezaugafitzat, aztertzeko asmoz, bere bakafaren seme eta maitearen, Isaak'en efe-oparia agindu eutson. Gizonak oparitzat eskintzea, debekauta egoan afen, Abraham'ek murkitik egin barik esana egin eban. Isaak, Yesu-Kristo'ren Opariaren irudiditzuena izan zan. Abraham'ek, Yaunaren agindua entzunaz beste barik, bere seme bakafari ez eutson parkatu.

Yaungoikoak Bere Seme Bakarari ez dautso parkatzen, eta gu guztion alde eskintzen dau...Isaak'ek,apal eta esaneko, bere lepoan daroaz, Moria mendirako, bere oparirako egurak Yesus'ek,Gurutzeko egura arestaka daroa, mendi garerano"eriotza ta Gurutzeko eriotzararte esaneko zala".

IRUDIA 5.-ABRAHAM ONESPENA

Yaungoikoak izetautako tokira eldu ziranean, etsekabe andiz bere seme Isaak'eri esan eutson:"opagaya zau zara". Oparirako gertau zanean, Yaunak, aingeruaren bidez bere eskua gelditu, eta bere ziñeste ta menpetasunaren atsegiña agertuez ganera, yangoikozko onespen andienaz agintzarik gorengoenak egin eutsozan.Eta ara eridu edera:Isaak'ek bere burua lotuteko eskiñi eban eta egur pilogen ganean ipiñi be bai... Kristo,Bildotz antzera, agoa idigi barik, eskiñia izan zan, Berak gura izan ebalako....Gurutzean yosten burua itxi eban,Beferoskunde-opari lez.Isaak irudi bakarik izan zan, eta alangotzat

bafiro artu eban Abraham'ek, Yesus'ek Bere Autak eskiñita Bere Odol guztiz Edefa eskiñi eban, gure pekatu guztien ordain osotzat, eta gizaldien azkenerarte, Opari ori bariztauko dau.

IRUDIA 6.-ISAAK'EK YAKOB ONESTEN DAU

Yaunak, Isaak'ek yatofitik munduko Gaizkatzalea yayotea gura izan eban, eta Bere asmo igafi-eziñak aufera eroateko Rebeka'n maltzurkeria aitzat artu eban. Yakob, Isaakéri, bere seme Esau zalakoan esan eutson: "Zatoz nigana, ondo ezagun da nire semeagandik urtetan daben usain gozoa, Yaungoikoak onesten daben landa usaintsuaren antzekoadala. Zeruko iñontza ta lufeko mardulatasunaren bidartez, Yaunak gari ta ardao ugaritasuna emon dagizula. Efiak otseindu zagizela eta erkiak gurtu. Zure anayen yaun izan zaite, zure aitaren semeak zure aufean makuftu beitez".

IRUDIA 7.-YAKOB'EN ONESPENA

Esau'k, len-seme legez zegokion eskubide barik bere burua ikusi ebanean, asafe biziz yafi ta Yakob zematu eban.

Rebeka'k, bere osaba Laban'enera iges-egiteko onua Yakob'eri emon eutson. Aram'era bidean zelai baten gauak artu eban. Oso nekatuta loak artu ebanean, amesetan Aingeruen maladi bat ikusi eban, eta Yaungoikoaren Abotsa entzun eban auxe iñotsola: "Ni nas Yauna, zure aita Abraham eta Isaak'en Yaungoikoa. Lo zagozan lufa zuri ta zure ondorengoei emongo dautsuet......eta zugan ta zure ondorengo bategan lufeko erki guztiak onetsiak izango dira."Benetan eder eta iñoiz ikusi ez diranak dira irudi oneik!:Maladia,Yaungoikoaren laguntza da; Aingeruak, Goiko Yaunaren aufera otoi eta eskariak eroaten dituen bitartekoak; burukotzat artu eban afia eta bertan Yakob'ek egin eban igorzketa, Yesu-Kristo eta Bere Eleizaren irudi bikañak!.

IRUDIA 8.-YAKOB'EN IRAGARPENA

Yakob'en edestia benetan biotz-ikutzaz eta ostetasunez beterik dago. Eurok Yaungoikoaren aukeratze ta onespenaren ezaugafia daroe. Baña gure as-

moak eskatzen dabenez, berak Beferosleatzaz egin eban Iragarpenak aukeratuko dogu.Yakob'ek bere eriotza uřeanegoala ikusirik, bere inguruan semeak bildu ebazan, eta bere onespen-eskua Yuda'ren buru ganean ipinita andikiro esan eban: "Yuda'ri bere Agintaritza ez Yakob kenduko,ERIAK ITXAROTEN DABENA....BIALDUA IZANGO DAN ARTEAN.-Baita Yose bere semearen buru ganean eskua ipiñiaz, bere anditasuna abestuaz,bere goi-argizko onespena emoten dautso:"ire aitaren onespen au-diñotso-onespen guztien gañetik egongo dok,BETIKO MENDI GAŁURAK GURA DABENA ELDU ARTE.

## IRUDIA 9.-MOISES'EN AUKERATZEA

Faraon'ek bere altasunaz Yaungoikoaren Eřia zapaltzen eban, eta Israeldaren umeak erailteko agindutik mirariz bizirik urtenda, Yaunak asmo azalgaitz eta mirari ařigařien bidez bere eřiare Zuzendari egin eban. Yaungoikoak Bere eřiagazko Ardaratasun ařigařiaren aldia, Kristo'ren aurretik egundo izan ez dan langoa.Yaungoiko gure Yau-

ña esku zabal agertzen da itz eta egiñetan.Sasi bat mirariz efe ta irautenebam bitartean,Mises'ek Yaungoikoaren Abotsa entzuten dau,bere neufibako aunditasunatik iñotsona: "Ni nas eure Aitearen Yaungoikoa, Abraham'en Yaungoikoa, Isaak eta Yakob'en Yaungoikoa:Ejipton nire Efiaren atsekabea ikusi dot eta bere diadafa aditu dot".

IRUDIA 10.- PASKO BILDOTSA

: Yaungoikoak aututako Efia Ejipto'ren indarkerizko agintaritza ta menpetasunetik urteteko unean dago. Yaunak berak iragafi autson azkatasuna, eta esan gura abdiko zetzeladak emotendautsot, bildotsa gertau eta yateko ta bera ildeko ereatzaz. Bildotsak akats bakoan izan bear eban, oparitzat egoki zanez; Isfael'go oben edo pekatuen ordain gafi izan be bear eben gaizkayzerako gai izan zeitekean; opari bakeskoa yatel yataldiak Yaungoikoagazko batasunaren irudi izan bear ebaneta;efeea yan bear zan,azufik apurtu barik,legamibako ogiaz eta iraduz yan bear zan,

bere garbitasun eta gaizkakunderako i-radua adirazo beaŕ eban eta.."zuen ga-ŕiak estuta, eta makilea eskua dozuela yango dozue....iraduz, Pase...edo Yau-naren igarotea da ta".

IRUDIA 11.-AINGERU SAKAIĽTZALEA

Pasko Bildots au,opari lez,yataldi-lez,eta agindu guztietan,Yesu-Kristo'k izentautako eredu da, eta Berangandik artzen dau ordaindu ta zainduteko in-daŕa.Ori dala-ta,Paul deunak diñosku: "Gure Pasko-Bildotsa Yesu-Kristo da.O-paldua izan da.". Eta asko esangurako-andidun Yaunaren aginduak yaŕaitzen da-be:"eta egun oŕetako aŕatsalean opaldu-ko dozue, eta bere odolez buztitako-buzti-bedaŕagaz buztiko dozuez ategai eta auŕkintzen zarien etxetako ateburu-ak,Ni ba odola ikusita auŕera igaroko-naz,ixuñi odatzaleak ikutu barik".Yaun-goikoak ez dau gura ba,bildotsaren odo-lagaz buztitako Isŕaeldaren etxeetan Ain-geru ondatzalea sartzerik. Yesu-Kristo opaldua izan zan eta Bere Odolagaz al-dendu ginduzan Aingeru ondatzale ta be-

tiko eriotzatik.

IRUDIA 12.-ATXETIKO URA

Yaungoikoaren eŕi autuaren urteera asten da. Mirari bidez Yaunak zainduta Itxako gońia, igaroten dabe. Suzko ta yaŕail-lañozko abeak izentautako bidean yaŕaitzen dabe, eta basamortuan sartzen dira, eta an on-egiten aŕigaŕienak artzen dabez. Ikuŕ idartsu ta irudi diz-dikoŕa eskintzen dausku, Moises'ek makila alatzgileagaz atxa yote sortu zan urak, Isŕael'daren egaŕi bizia asetuteko, Zear-esan eskutuaz, diño Yaunak: "Ara ba atxean zeure auŕean egongo naz". Kristo'ren erudi dan atxeko uretik guztiak edaten, yidaŕak yo eben ba eta Gurutzean il, artxak idigiaz au da. Bere zaurien ituŕiak, bertatik sortu eragiñaz eskar edo grazizko ur biziak. Ituŕi onetatik ura ateratekö dei egiten dausku Isaias igarleak, Yesu-Kristo'k diñoskunez Betiko Bizitzaraño yauzka egiten dabe ta.

IRUDIA 13.- AMAR AGINDUAK

Isŕael'daŕak Sinai'ko Basamortura-

eldu ziran eta bertako mendian euren txabolak ipiñi ebezan..Yaunak autotutako tokia zan, Efkabakaz asi eban Itunbena andikiro bafiztuteko. Moises'en bitartez guztiei garbitzeko agindu eutsen Sinai'ra Yauna yatsiko zala-ta... "Irugafen eguneko goiz-aldian,trumoyak entzuten asi ziran eta tximistak argituten....Sinai guztia ketan egoan,. turuta soñua entzun zan.....eta afituta-Yaungoikoaren Abotsa entzuren eben:"Ni nas zure Yaun Yaungoikoa".......

IRUDIA 14.-ITUNBENA OSOTUTEA

Itunbeneko "Idaztian Moises'ek idazten ditu Yaunaren itzak, eta Itunbena sendotuten doa. Mendiaren oñean oindi edo aldara bat yasoten dau, eta Yaunari opariak eskintzen dautsoz. Opagayen odolik erdia oindi gañean ixuriten dau, eta beste erdiagaz Efia txipristindu Idaztiagaz batera berau ikuzteko,esanaz:"Gauza guzti oneitzaz,Yaunak zue--kaz egin daben Itunbeneko Odola auxe da......Itun bafia be, Bildots Gargiaren Odol guztiz garbiagaz ikufaztua i-

zan zan. Odol au Gurutzaren oindian-Gizadi guztiaren alde ixuria izan zan, Alderako Opari guztiz donean bere Eŕia buztiteko. Alen, Yesu-Kristo'k, Ikurton guztiz donean ipintean Moises'en itzok erabili ebazan: "ITUN BAŔIKO NIRE ODOLA AUXE DA, pekatuen parkatzerako ixuriko dana.

IRUDIA 15.-BURDIN ORIZKO SUGEA

Eŕia bai dala aldakoŕa!..Isŕael'daŕak laster aztu ziran agindu ebenagaz, Yaungoikoagaz andikiro egindako itun benagaz, eta Yaungoiko Altsuak egindako Grazizko mirariekaz. Txetxarkeri ta eskertxaŕ ikaragaŕiagaz, euren gaizkatzearen kaltez asten dira, euren Gaizkatzalearen kaltez mormoxetan, eta yan-edankeri ta gaiztakerian yausten dira ....Yaunak, suge sutsu eta ikaragaŕiro eriozkiñaren bidez zigortuten dauz.

Eŕiaren ezkeriz Moises'ek parkatzeko eskatzen dautso, eta Yaungoikoak Bere neuŕibako eŕukiz burdin orizko suge bat egintzen dautse osasun ezaugaŕitzat. Gure Beŕeroslearen irudi bikaña

da burdin-orizko suge au, Yesus be pekatuaren madarikatze onetatik beferosteko gugaitik "madarikatze" egin zan, eta Gurutzean yosi eban gure pekatuaren agiria, eriotzak urten eban tokitik bizitzak urten egian.

IRUDIA 16.-YAUPARI GURENA

Moises'ek, Yaunaren aginduz Yauretxola eragi eban, gure Leiza Amaren irudi lez eta Yauna eta Yaunaren yauretxearen ardunadun Levi'n erkitik gai ziranak aukeratu, eta goiko deyaren ezaugafi agiriak emon eutsezan. Aaron, Yaupari Nagusia Oindi ondoan opariak "pro peccato" eskintzen dauz: efe-opariak- eta opari-gai baketsuak, eta efia onesteko eskuak luzetuten dabezanean, guztien afitasunez, lañozko abetik goitarsuak opagaya efetako uftegen dau...Yesu-Kristo gure Yaunak, Bere gomuta betikotuteko Bere Yauparitza ipiñi eban, eta galandi andi ta egizkoak emon eutsosan: Bere esku onetsietatik Kristo berak urtetan dau arimak efetan dabezan su onetsia lez, onetan Yaungoikoa be-

re izakiekazganako maitasun neufibakea agertuaz.

IRUDIA 17.- , P A S K O A

Bildotsaren Apariagaz Paskoa agindu eban au da; Ejipto'ko yoputzatik aterata Isfael'afen len-semeakaz Yaunak euki eban efukia ospatzeko ta gomutatzeko. Yataldien ardao edan-eraoten da, ortuari gafatzak eta ogi otilak, (legamibaboak) yaten dira..eta...abesti yainkotiafen artean gomuta irakurteak egiten dira, oindian Yaupariak odolustu daben bildotsa mai ganean zote bigaz gurutze eran zeartuta yaten dabe. Yesu-Kristo gure Yaunak Bere asken-aparian yai-oikun guztion aintzat artzen ditu bere ikasleakaz batera. Bertan egin zan Yaunaren altasunak egindako alatzik aundiena: Eukaristia ta Kristiñau--yauparitza eratu eban, Bildots garbi garbi lez eskiñiaz, gizonen bizi ta gaizkatzerako, yainkotaf yanari gizonoi emonar.

IRUDIA 18.-SAMUEL'EN AMA

Ana, Samuel'en amak, Heli Yauparia--

ren aurrean, iragarki-biozketaz esker-a-abesti bat abestu eban, Maria gure Amak, bere lengusein Eleisabet ikertu ebanenean abestu eban lez."Ni nas a andrea, diñotso Heli'ri, zure aurrean Yaunari-otoi egin autsona. Ume oneigaitik o-toitz egin neban, eta Yaunak nire eska-ria entzun eban. Alan ba, neuk be bere egun guztietarako Yaunari eskintzen dautsot. Eta belaunikoturik, poz, eske-rron maitasun eta iragarle gogoz bertan otoitz egin eban. "Nere biotza pozez ikotika dago Yaubegan etanire al-iza-tea Yaungoikoagan goratua izan da..... Asetuta egozanak ogiagaitik alogeretu ziran, eta gosetiak yai egin leikie. Eskekoa autsetik yaso eban, eta zimau-rretik beartsua ya goratu, erregayekaz yarri daiten, eta aintzazko bakaldun y-yarlekux bat bete dagian..Esangura an-diko abestia da au, bere Samuel, Gaiz-katzalearen irudi oso lez aukezten-dau ta.

IRUDIA 19.-SAMUEL'EK DABID IGURZTEN DAU

Pilisteotarrak euren aurka ebiltzaza-

la,Isfael'dafak bilduf-ikaraz Samuel'-eri iñotsoean: Gure Yaungoikoari etenbarik gure alde otoi egiozu. Samuel efe-opariz bildots bat eskintzen dau, eta opari bitartean eta otitzean ziarduala, Yaunak garaitza afigafi bat emon eutson. Samuel, bere efiaren nazaretar gaizkatzalea da...Bere amak abestian aufeztik esan eban lez, eta, Yaungoikoak autu eban Dabid artzaintzoa igurtzeko,Goliat zentoya beronek - azpiratu eban eta.Aukeratze eskutua ta igurtze gelgafia.Yaungoikoak Samuel eskutik lez eroan eban, arpegi eder eta ule gofidun artzain gaztea aukeratzeko ....Emen ikusten dago, Graziaren bidez aukeratzean agertzen dauskuzan bide afigafiak....Yaungoikoaren asmoak,Dabid aurkezten dausku, Mesias irudi bikain eta bere Yatofiaren Aita lez.

IRUDIA 20.-KUTXA DONEAREN ALDATZEA

Bere Efiatzazko Yaungoikoaren asmo, eta Efiaren bizketak,eta Mesias'en aldiak irudi baten eta itz gitxitan dauken esangura sakona ezin azaldu leike,

batez be, igarle sentzunez beterik dagozan Dabid'en agintaritza eta Efesien abestia.Diñoez guztia Befesosle gurgafiaren aintzara zuzentzen da, gure arimentzat bizitza ta aintza bera da-ta. Guztia adirazoten dauskun yazokun onek: Dabid, Efege igarleak, bere arerioak azpiratu ondoren eraspen andiz Kutxa Donea aldatu eban.Kutxa xonek adirazoten eban Yaungoikoa bere Efi aurtuaren aufean egoala.Kutxa doneari laguntzenyoyazan abestaldeak arpa, zitara, lira ta turutak eta afatzak yoten.Dabid bere yauparien aufetik doa ta berak be abestu, dantzan egin eta arpea yoten dau.- Yaunaren mendira nok igongo dau? diñosku XXIII gn. efesiak. Nor egongoda Aren toki gurenean?. Eskuak obenbarik eta botza garbi dabena, gogoa uskerira makurtu ez,eta guzur-ziñik egiten ez dabena. Ateak! yaso egizuez buru zarienok, betiko ate ofeik zabaldu-zaiteze Efege ospetsua sartu daiten...
..............

LENENGO ATALAREN AMAYA

## B I G A R E N   A T A L A

Yaungoikoaren Yoranez egoan Eŕiaren gurari biziakaz, aldien osotasunera uŕeratzen gara. Munduaren Gaizkatzalea Neskarbi Oroanbakoagandik, Gaizkatzalea yayoko dan unexa. Isŕael'ko bakal-eŕia yausiez doa, eta Yuda'ko bakal-eŕia erbesteko yoputzan yausi da. Yaungoikoak gizon zintso, bizitza latzekoak autu ta gertatzen ditu, eta goi-aragiz beteril, igarledoyagaz beterik, anayen aldezko maitasun gartsuz, adoretsu ta bilduŕ barik euren arazo doneabetetan dabe. Onexek dira Yaungoikoaren Eŕiaren galbide ta gatxetan, yentilkeriaren eragipenari arpegi emoten eutsenak, eta euren arazoa betaaz, Beŕeroslearen etoŕerako Eŕia gertatzen dabe.

## IRUDIA 21.-ISAIAS ETA ARTZAIN ONA

Ekesiasti'ko deitzen dautsonez, I--saias igarle andi ta zintsoa izan zanak "Yaungoikoaren auŕean bere Eŕiarenetorkizuna ta Mesias'en aldiak aŕigaŕiro argi ikusten dauz. Negar dagienak

poztuten ditu eta bere biozketan itz samur eta Beŕeroslearen itxaropenaz nastatsen dira Beŕeroskunde odoltsuan, orbanbako Bildotsa ikusten dau: Yoranez eskatzen dau zeruak idigi daitezala Zuzena etoŕi daiten, munduko nagosi dan bildotsa, basamortuko Atxetik Sion ´go Alabearen Mendiraño, margoz biziz azatzen dau Mesias´en bakalaldiko edeŕtasuna....Bake ta zuzentasuneko Bakaldeŕi lez, eta liluratuta, bere irudiak sutu ta bizto egiten dira,Artzain onaren erudi samuŕean Garaitzalea ikusten dabenean.

IRUDIA 22.-OBENEKEA EGIZUE

Yeremias, Eleiz-Gurasoak diño enez, Yaungoikoak autua eta Yon Ugurtzelearen irudia, izan zan Yerusalen´go ta Yuda´n ondamendia iragaŕi ta ikusi ebena,luŕean gayen maite ebazan dauzak. Obeneko gogor, ~~giz-garbitasun eta o-~~ toiz,eskari, negaŕeta zear-esanez,biotazk damutasunera eroan guraditu, guztiz antxiñako abitz batek diñoanez,ordeaz goŕoto, yasarpen ta bere artekoak

eraildua izateko. Itz samiñakaz Yudaf efiaren ondamendi ta yoputasuna iragarten dau, baita Babilonia'ren yauste ta yoputzatik yarein izatea, obeneke ta otoitzera dei egiñaz.Pozez bererik Mesias eta bere Bakalaldia ikusten dau, bertan efi guztiak sartzen diralako Gaizkatzalearen Itun bafi ta betikoan.

IRUDIA 23.-ARIABARA TA NEGARAK

Eleizak, Yeremias Igarlarearen biotz-ikutzeko ai-eneak erabilten ditu,Egizko Eleiza biziaren ondatzeak emotenzko dautsot samiña agertzeko, au da: BEREROSLEAREN NEKALDI TA ERIOTZA.....Baita negar dagi, gizonen obenak dirala-ta, arimen eriotz eta ondamendi diralako.- Baña bere samiña Yerusalen da ta bere-ai-enetan Iragarleak Uriak eta izangobiztaleak daben zoritxaf ikaragafia dala-ta samintasunik gafatzena agertzendau................

IRUDIA 24.-SION ERANTZA

Yeremias'en negafa alaitasun deun biurtzen da, iragarkiz munduko Gaizkatzalea ikusten Iragarleak bere nega-

fak alde batera itxiten ditu, pozez ikotika, Mesias'en etorera ikusteko. Aldia uferatuez doala diño, Yaungoikoak Mesias'en bitartez Itun Bafi ta Betikoa egingo dabena "Yaunak -diño- gauza bafi bat egin dau; EMAKUME BATEK GIZONEZKO BAT INGURATAKO DAU...Au da; Atsegin Baratzan egindako egintzaren itxaropena dagokion emakumeak Gizonezko bat sortu dau, Mesias Yainko Beferoslea. Berau gizon danez, ume argal antzera Neskarbi baten Ama-Sabalean inguratua izango da, eta, Yaungoikotasuna Gizatasunagaz batzearen bidez, Gizakundeko lenengo unetik, Gaizkatzalea izango da, munduaren Beferoslea.

## IRUDIA 25.-BALTASAR'EN APARIAN

Oin Daniel iragarle gaztearen txandea da; Susana'ren garbitasun aldezlea leoyen erpata sutik mirariz zaindua, amesen azaltzaleak Yaungoikoaren Efukia noiz agertuko da dan iragarten dau..G-Goitik artzen daben argia afigafia da, Baltasaf'en apal-mayaren ganean agertu ziran itz eskuruak azaldu zituanean, Efe-

ge onek eskiñi eban yanaldian Yerusa--
len'go Eleizako ufe ta ufe zurizko e-
dontziak donaustez eraten ardao berota-
sunean, euren guzufezko ufe gofi,ufe
zuri burdin eta arizkoen yainkotzako
irudia goranen ebezan bitartean,esku--
atzamar batzuk lez agertu ziran orman
idazten,, efegearen aretoan.Efegea zur
biltzen da Efege yaugeriko aztiek ezin
dabe azalben garbirik emon. Daniel'ek
itzak azaltzen ditu, Yaungoikoaren zu-
zentasun zigofa iragarten ebela esanaz.

IRUDIA 26.-DANIEL'EN IKUSKIZUNA

Daniel Iragarleak zerutik argitasun andiak artu zituan. Eurotan goi-argiz agertzen da gure Beferosle gurgafia.--Daniel'ek otoi dagitso:"Nire itzak endotzun egiguz: Zure efi ta zure uri doneari dagokionez IRURETAMAR ASTE izendatuak izan dira zinitxikeria ondatudaiten,obena amatu ta gaiztakeria izebatua izan daiten eta eguzkizun eta iragarkia bete daiten eta DEUMEN DEUNA igurtzia izan daiten. Yakin egizu eta afetaz artu. Itz su "Agindua" emoten

danetik, Yerusalen'bafiztatzeko,Efege--gaya (Kristo) igoftzi artizazpita -amabi aste iraroko dira,estualdian zelaya ta orma-esiak iragiko dira. Eta irurogeta amabi aste igaro ta gero(Igortzia-Kristo) ilgo dabe, eta Efegegayak, Igortziak itunbena sendatuko dau eta azkenerarte iraungo dau....eta Daniel zertzelada sendoz yafaitzen dau, Mesias'en Iragarkiak dauken ondafa ondo agaftzen dabenak.

IRUDIA 27.-BURDIEN IKUSKI ZUNA

Agindutako ~~eta gurari biziz~~ itxaroten Egiaren egunak zoriontsuak uferatuaz doaz. Zakarias, Iragarle sakon eta eskututsuak, Mesias'entzaz argi ta garbi itz egiten dau, eta ezan leike ikusitakoa azaltzen daben Goizpatgilebat dala. Efiari dei egiten dautsen iragarkiak afigafiak dira, Beferoslea etofiko dala iragarten dautsoe, Yerusalen'go aintza, Sion'go onespena, eta itz egin eta itanduten dautson Aingerua gandik Yaungoikoaren ixila artzen dau. Begiak yasota-diñosku-mendi bien

erditik lau burdi zaldi bizkofak ipar aldetik ego aldera eroyezala.Ikiskizun onek zer esangura daben ez daki....eta Aingerua azaltzen dautso, bere iragarle indafa agertuaz. Koroe batzuk egingo dozuz-diño-tso eta Yesus, Yaupari-Gurenaren buruak ipiñiko duzuz.....Ara emen gizona, bere izena Sorkalde edo Mesias da eta Bera,Berandik yayoko da, eta Yaunaren Leiza bat iragiko dau.

IRUDIA 28.-AUREZLARIA IRAGARTEA

Begira, emen dator, esan geinke Malakias Igarleagaz....Bera, urtuten daben suaren antzeko izango da, eta ufe zuria urtu ta garbitzeko ezafiko da.Olantxe Levi'n semeak garbituteko ditu,eta eurak Yauna opariak zuzentasun-eta deunatasunez eskiñiko dautsoez.Zakarias, Yon Aufezlariaren aitak,guztiz Altsuaren yaupari lez,berarari zegokion arazoetan Eleizan Yaunaren aufean bakafik egoala, kedatz edo intzentsoa eskintzean,Aingeru batek altararen eskumaldean zutunik agertuta esan eutson: "Zakarias, ez bildurtu. Zure emazte E-

lisabet'ek seña egingo dautzu, eta Yoan izena ezaŕiko dautsozu. Atsegin eta pozgaŕi izango yatzu eta bere yayotzaz asko poztuko dira, Yaunaren auŕean aundia izango da-ta. Guztien auŕean Elias 'en adore ta indaŕez yoango da Yaunari eŕi bikain bat gertuteko.

IRUDIA 29.-D E I K U N D E A

Yaunaren Aingeruak, Maria'ri Yaungoikoaren aguŕa ta gezna daroatsoz. Yaunaren neuŕibako eŕukiak, deuntasun eta gogo berberak agindutakoa betetan dau. Maria, eskaŕez betea, ia neuŕibako gurentasunera deitua izan zalako, Yaungoikoaren Ama da, onetsia emakume guztien artean gizadiaren Aintza dalarik, Goi-aingerua abetalduten dau bere gogoan apaltasunak sortu eragiten dautson bilduŕagaz. Goi-aingeruak diñotso: " Ez bilduŕ izan. Maria, Yaungoikoaren edeŕa dozu-ta...Begira, sablean semebat sortu eta egingo dozu eta Yesus izena ipiñiko dautsozu, Andia izango da, Yaungoikoaren Seme deitua izango da-ta aren arbaso Dabid'en Bakaldun Aulkia-

Yaungoiko Yaunak emongo dautso, eta-Yakob'en etxeko nagusi betiko izango da ta Aren Yaur̃i-aldiak amairik ez dau izango.

## IRUDIA 30.-I K E R K U N D E A

Yaungoikoaren Asmo sakonak benetan dira, Yaungoikoaren erabagiak betetako, Maria'k bere lengusein Elisabet ikertu ebanean...Maria Neskarbiak Yaungoikoaren Semea, Espiritu Satuaren bidez bere sabel garbian Gizon egin zana eroyala lau-egun ibilalditan dabil toki menditsu ta bide latzetatik. Grazi guztien Ama dana dator̃ bere lenguseinagana, beragaz poztu, lagundu ta Aur̃ezlaria deunduteko.

## IRUDIA 31.-AUREZLARIAREN YAYOTZA

Aur̃ezlaria yayo ta Yoan izena ipiten yako. Zakarias bar̃iro itza etor̃i yakonean, Espiritus beterik, irakartze bidez BENEDICTUS abestuten dau Yaungoikoaren Ber̃eroskundea goralduteko, orduantxe egiztuten zan ba, Yaungoikoak Iragarlen bidez esan ebana.....Ber̃eroskundearen ondoren onak goraltzen

dau,Yaungoikoaren Efuki ta agindutakoa betetan zintsotasuna,ofexegaitik Gizakundea izan zan eta, baita Yaunaren zuzentasun eta Deuntasuna, orixe zan Beferoskundearen asmoa, eta bere Semeagan biurtuaz, Yaungoikoak izentautakoarazoa aitatzen dau. Onetsia izan bedi Isfael'en Yaungoiko Yauna, bere Efia ikertu ta beferosi dabelako. ...

IRUDIA 32.-E R O L T Z E A

Gurenak eta ulerkaitzak dira Yaungoikoaren asmoak. Iragarkiak betetan doaz Gizadiaren Gaizkatzalea Belen'en yayota. Efege yentil batek Kesar August'ok lufbirako yaube bailitzan,iragarkia betetako, bere menpekoan zenbakuntza edo efoltzea agindutes dau... Une onetan Yoan deunak diñoana itzez-itz bete zan: Bere etxera etofi ta bereak ez eben aftu". Geugaz batu ta efukituteko, Lufera bilozik eta txiroetofi zan, gu zeruan aberastu ta Aingeruan malan epintekp. Maria ta Yose'k ostaturik ez dabe aurkintzen eta ainbeste lagunen artetik abeletxe ziran lei-

zetera zuzentzen dira, eta antxe diz diz egingo dau, Guztien Eŕege danen argi dizdizratsuak.

IRUDIA 33.- Y A Y O T Z E A

Eskutapenak bata besteari yaŕaitzen dautse, eta Iragarkiak oso-osoan bete-tan dira....Munduaren Gaizkatzalea Be-len'en yayoten da. Ainbeste yoranez gizonak itxaroten eban zorioneko ordua Gizon Zuzenak iragaŕi ebena, eta Yaun-goikoa Ludiari aginduta eukona,eldu da. Beaŕizan eta apaltasun osoan, zeruko argitasun aŕigariz inguratuta,beaŕtsu-en ezaugaŕi ta geznari lez....apalak-goraldu ta aŕoak zapaltzeko.....Gizon-nen Beŕeroslea yayoten da...Gozparkil-leak itzez uŕiak dira, eta Yesus'en Seintzaroaren abeslariak, leŕo gitxi itxi dauzkuz,yaunkoyak, ori bai, baña labuŕak eta lautasunik andienaz diños-ku: "Eta an egozala ordua eldu yakon Maria'ri ta bere Len-Semea izan eban, eta oyalez bildu eta okulu-askan ezaŕi eban....aroztegian areintzat tokirik - ez zalako"......

IRUDIA 34.-ARTZAIÑERI DEITZEA

Artzain batzuk, alde aretan, aldizka artaldea saintzen egozan, eta, bapatean, bildufez, Yaunaren Aingerua zeruko argitasunez beterik,euren ondoan-agertu yaken. "Ez dozue bildurtu beafik, BARI OSO POZGARI BAT emoten natorkizue-ta. Zaizkatzalea,Kristo gure Yauna dana, Dabid'en urian gaur yayo yatzue.Eta ara emen ezaupidea:"Seintxoa -oyalez bildu ta ukulu-azkan ipiñita aurkituko dozue". Eta une onetan, Aingeruagaz batera,zerutar aingeruen talde andi agertzen da, Yaungoikoa goraltzen esanaz: "GOYETAN AINTZA YAUNGOIKOARI-ETA BAKEA LUREAN GOGO ZINTZODUN GIZONEI"............

IRUDIA 35.-ARTZAÑEN GURTZEA

ZERUTAR GEZNARIA beartsuei,Belen inguruetako artzain apalei emondako geznaren irudi da. Onexek dira, Iragarleak ainbeste bider iragafi ebezan txirotasun eta apaltasun ezaugafiak.Ezaugafi au, artzañen apaltasun eta lautasunari ondo etorkiena izan zan, eta

Yesus zelan aurkitu bear dogun irakas-
ten dausku.Artzañekaz batera esan dai-
gun: Goazen Belen'era, Yaunak iragafi-
dauskuna ikusi daigun.Goyetan, zeruan,
goraldiak andikiro otsegiten dau eta
Lufean, Yaungoikoaren Semea Gizon egi-
ñaz, Yaungoikoaren sintza ta goralbe-
nez betetan dira....Bakea, Beferoskun-
deko eskafagaz, azpiratzea ta biotzak
Yaungoikoagan alkartutea.

<u>IRUDIA 36.-BILEBAIKUNDEA</u>(ZIRKUNTZIZIÑOA)

Yesu-Kristo'ren lenengo odol tanta-
kak yudatefak oi eben Bilebaikunde-
an izuri ziran.Umearen gorputz samufe-
tik..Munduaren zorionerako Gaizkatza--
leak izuriko eban Odolaren aztefena -
izan zan.Andra Mariak Aingeruik ezan
eutson lez, Yesus izen gozoa ipiñiaz,
eskutapen aù ukertu eban eta goitaf
pozez bete zan.Zein-Yaungoikoaren Aur-
tzaroak,~~apaltasun eta menpetasun~~ ikas-
bide ederak emoten dauskuz, gure gogo-
bilebaikundearen beafizana irakatziaz-
Andra Mariak, Yaungoikoaren eskutapen
andiok gogoan erabiliaz, bere Maitasu-

naren asmoa eta euren ixil-eskutua aituten dau.

IRUDIA 37.-ELEIZAN AURKEZTEA

Amaren biotzak somatzen daben maitasun-gaŕa iñork be ezin leike uleŕtu. Bere Yaungoigo ta Yaunaren mirabe zintsoa zanez, goiko argiak agertzen eutsOnez Sein samuŕa nekepean ipinten eban...A, Umea Yaungoikoaren Seme Bakaŕa, neuŕi barik deun, ez eban Bilebaikunde beaŕik eta bere Ama be ez lege Garbikunde bearik, ez zegokioen eta Maria'k Len-semea eskiñi beaŕik be - ez eukan,beti guztiz Garbia izan zan - eta Maria Sortzetik Garbia,Gaizketzaleen yayotzeak deundu egin eban.Simeon iragaŕkiak,Eskutapen onetan Yaungoikoaren asmoaka agertu ebezan,eta osoan-bete be.

IRUDIA 38.- AZTI(MAGO) GURTZEA

Magoak Sorkaldetik etoŕi ziren Ama altsoan eukon Yesus, Ume-Yaungoikoagurtzeko...Yentilen lenenkiak dira eta Ume samur oŕegan auŕez-suŕe diran iŕibiar batzen dira, artzañetan yudarak

eta yentil eŕiak Magoetan. Euren kutzak idigi ta uŕe, intzentso ta miŕa eskintzen dautsoez, Yaunak asmoaz beteaz. Uŕeagaz betiko Bakaldun edo Eŕegeautortzen dabe,intzentsoagaz neuŕibako Yaungoiko autortu, eta miŕagaz, Gurutzeko Beŕeroskunde odoltsua adirazten dabe. Onei gogo onei auŕea artu eutsen, gogo daunak ba, goi-maitasun uŕea, otoitz-intzentsoa, atsekabeen miŕa eskintzen dautse-ta.

IRUDIA 39.- EGIPTO'RA IGES

Iragaŕkiak bete egin beaŕ dira-ta.. Maria ta Yose'k Deunen bidetik ibiĺi bear dabe. Yaunak ba, atsekabezko bidetik deunak erabilten ditu. Betiko pozagaz ez ditu inguratzen; euren bizitzan apoz eta atsekebe aŕigaŕiro nastuta agertzen dira......Magoen guŕtzeak emon eutsen, pozari, Egipto'ra iges egiteak yaŕaitu eutson, samintasunez beterik, guri menpetasun osoaren ikasbide eder bat emonaz.Eta Yose'k"aolkua artu ta" Umea ta bere Ama gabaz artu ta Egipto'ra aldendu zan, eta an egon zan Ero-

des'en eriotzararte, Yaunak, igarlea-ren agoz esana bete zedin: "Neure semeari Egipto'tik deitu dautsot".-Bildufak ez ziran amaitu eta atsekabea euren arimetatik ez zan aldenduko eta ezin aldendu ba Yaunak alan nai izan da,- geure zaritxafak euran gain aftubeaf ebezan, Beferoskunda donea betetako.

IRUDIA 40.-O S P E K U N D E A

Ara emen gure Yaungoikoa, Bere Gizatesun deun bizian Gizona Yaungoikoagaz adiskidetuteko bere burua Aitari eskintzen Beferoskunde donean.....Gure Efege ta Yaun, gure Epaikari ya Gaizkatzeleari begiratu ta gurtu degigun.. Gure gogoak Bere otseintzarako biztu beiztez,eta geure maitasunaren suan eskiñi dayoguzan Bere Argintaritzako eleiza biziak,Bere goralbenak abeztu eta Apaikariren Etofera gertatzeko eta betiko Zeruetara eroan gagizan. Bere Odologoz erosiak gara-ta, ikasi dagigun bizitzen zintsotanez zerurantzaigoten, eta Bere maitasun bafuan,ero-

anak lez izan gaitezan Elias Igarlea zuzko burdian eroan eben lez, Epaikun-dean Yaunaren asafea ibituteko, Aita-ren biotza semeenagaz adiskidetuteko, Yabok'en Efkiak bafiztuteko. Yesus'en Izen guztiz gozoaren aufean guztiak be-launikoteko dira Zeruak,Lufa ta Inper-nuak.....Auxe da, Gure Yaungoiko, gure Epaikari, Bakaldun eta Yaun.......Gure Aita ta gure bizitza..........

Gure dedu ta menpetasuna eskiñi da-yoguzan Betiko Guztien Efegearen oñe-tan, gu andi egin ta Bere Aintza amai-bakora yasoteko·Ume egin zalako

A M A Y A

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO
Sarr -
Gaia.-
Tokia:

A. M. D. G.

A Y A N A

